

Gauekoak



Aisialdi alternatiboa eta osasungarria gazteentzat

Vital Fundazioak Gauekoak ekimenarekin elkarlanean dihardu. Gauekoak, 2000. urtean bere ibilbideari ekin zionetik, erreferentea da gure hiriko gazteentzat, asteburuetako kultura, kirol eta aisialdi jardueretan.

Mota guztietako proposamenak: musika, arte eszenikoak, ikus-entzunezko jarduerak eta teknologia berriak, arte plastikoak, tailerrak, kirolak, elkarteentzako jardunaldiak, lankidetzak kultura ekitaldietan, ... hori guztia aurki daiteke Gauekoak proiektuan, jarduera eta kultura gaztea eraikitzeko aukerak aberasteko eta dibertsifikatzeko helburuari jarraiki.